



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko azaroaren 27an

104 ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mendillorri Iruñean sartzeko hitzarmena bete dezan (3. or.).
- Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza sisteman etorkinen beharrei erantzuna emateko arau-proiektu bat aurkez dezan (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, C-111 errepideko Erreniegako tartean gertatzen diren istripuei buruzkoa (6. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, eskola-lantegiei buruzko plan bat egiteko departamentuarteko batzordearen eraketari buruzkoa (7. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Agoizko eskualderako garapen sozioekonomikoko plan bat prestatzeari buruzkoa (7. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, “Pirinioetako Itsasoa” garapen plana prestatzeari buruzkoa (8. or.).
- Galdera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina, Bardeako Batzarrari Ingurugiro Zaintzak jarritako bigarren salaketari buruzkoa (9. or.).
- Galdera, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, Nafarroako Ospitaleko tanatorioko kudeaketan egindako aldaketei buruzkoa, (10. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, ikuskizun publiko eta josteta jardueretarako ordutegi orokorra aldatzeari buruzkoa (10. or.).
- Galdera, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, DBH ikasteko herritik kanpora joaten diren Castejóngo ikasleei buruzkoa (11. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, udaletako idazkarien bajak betetze-ko zerrendak prestatzeari buruzkoa (11. or.).

- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, goi presioko uren hornikuntzari buruzko plan zuzendaria gauzatzeko eta betetzeko mailari buruzkoa (12. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, toki entitateek jasotako diru kopuruei buruzkoa (13. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, etxebizitza bioklimatikoei buruzko plana betetzeko mailari buruzkoa (13. or.).
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen lanbide karrera aplikatzeko baremoen onespeneri buruzko galdera. Ahozko galdera bihurtua (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostu bat, euskara itzultzaile lanpostu huts bat, oposizio-lehiaketaren bidez betetzeko. Izendapena (15. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mendillorri Iruñean sartzeko hitzarmena bete dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mendillorri Iruñean sartzeko hitzarmena bete dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Toki Administrazioiko Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritako arekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztzen ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192 eta 193. artikuluen babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Toki Administrazioiko Batzordean izapida dadin.

1998ko apirilaren batean, hitzarmen bat sinatu zuten Nafarroako Gobernuak eta Eguesibarreko Udalak azken horren udal dermioko zati bat, Mendillorri, bereizi eta Iruñeko udal dermioan sartzeko. Hitzarmen hori Toki Administrazioiko kontseilari Rafael Gurra jaunak eta Eguesibarreko alkate-udalburu José M^a Senosiáin jaunak sinatu zuten. Hitzarmenaren 12. idatz-zatian ezarri zen Nafarroako Gobernuak "bere gain hartzen duela Mendillorri hirigune bereiztua hitzarmen honen 2. eranskinean aipatzen diren eta hura osatzen duten dotazioez eta azpiegiturez hornitzeko konpromisoa, modua, zenbatekoa eta exekuzio epeak adierazten direlarik".

2. eranskin horretan, Nafarroako Gobernuak Mendillorriko hirigunean eraiki eta finantzatu beharreko azpiegituren zerrenda bat ezarri zen. Azpiegitura horien artean, ondokoak zeuden, hitzarmenak hitzez hitz dioenez:

– Udal haurtzaindegia. 1996ko ekitaldia.

– Haur Hezkuntzako ikastetxea. 1996ko ekitaldia.

– Liburutegia eta Kultur Etxea. Nafarroako Gobernuaren politikari eta plangintza-irizpideei jarraituz. Data zehatzik gabe.

– Bigarren Hezkuntzako ikastetxea. Nafarroako Gobernuaren hezkuntza politikaren arabera.

– Lanbide Heziketako moduluak. Nafarroako Gobernuaren hezkuntza politikaren arabera.

– Zaharrentzako zaintzapeko apartamentuak. Nafarroako Gobernuak alor horretan dauzkan politiken barruan eta indarreko legediari jarraituz.

– Kiroldegia. Lanak 1997ko ekitaldian hasiko dira.

– Mendillorrira sartzeko bideak. Iruñerriko hirigintzako arauetara buruzko agirian zehaztutakoaren arabera; azpimarra egiten da Mendillorri eta Nafarroa Behereko Etorbidea lotzen dituen eta Unibertsitate Publikoa eta Tejeria-Mendillorri Biribilgunea lotzen dituen. NA-2303 errepidea zabaltzea eta hartan zoladura jartzea, Badostaineraino doan 1,5 km-ko tartean.

Hauek ziren Mendillorri Iruñean sartzeko hitzarmenean aurreikusitako azpiegiturak. Erraz egiazta daiteke horietako batzuk, gutxi baina, abian daudela eta betetzen ari direla, eta konpromiso gehienak hiru urte beranduago oraindik ere ez direla abian jarri.

Nafarroako Gobernuak hitzarmena betetzeko erakutsi duen utzikeria hori agerian utzi dute Mendillorriko auzoen kolektiboek eta elkarteek, eta

hitzarmena bete dadin eta bizi-kalitatea hobetzearekin loturiko beste puntu batzuk ere bete daitezkeen eskatzen ari dira. Epe laburrean hastekoak diren dotazioetan ere, eraiki beharreko azaleraren murrizketa handi bat izan da, kiroldegiarekin gertatuko den bezala: hasiera batean 29.000 m², igerrileku estalia barne, aurreikusitako ziren; orain, ordea, 3.800 m² aipatzen dira, trinketa barne.

Eskari horietako askok Iruñeko Udalarekin dute lotura, baina beste asko Nafarroako Gobernuari dagozkio. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen dugu ekimen hau aurkeztea.

Ezin dugu ahaztu Mendillorri 14 urtetik beherrako 2.300 bizilagun daudela, eta defizit handia dagoela bai kirol azpiegituretan eta bai kulturarako eta aisialdirako azpiegituretan. Adingabeen tasa altu hori, jaiotze tasa altuekin batera, berekin ekartzen dute dotazioak hobetzeko handinahiak izan nahi izatea. Hain zuzen ere, alde batetik Iru-

ñean sartzeko hitzarmeneko konpromisoetan jasota dago; bestetik, Nafarroako beste leku batzuetan aspalditik dauden azpiegiturek falta ditu Mendillorri.

Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Mendillorri Iruñean sartzeko hitzarmena bere osoan bete dezan, dagozkion eskumenen esparruan, oinezkoentzako eta bizikletetarako gainetiko iraganbide batzuk egin ditzan Ekialdeko Ingurubidetik Mendillorriaraino eta Iruñeko Udala premia dezan auzo horretako dotazioak hobetzeko hartu zuen konpromisoa betetzeko.

Iruñean, 2000ko azaroaren 10ean

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza sisteman etorkinen beharrei erantzuna emateko arau-proiektu bat aurkez dezan

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza sisteman etorkinen beharrei erantzuna emateko arau-proiektu bat aurkez dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiki baino lehen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrús

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko

192. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Toki Administrazioako Batzordean izapida dadin.

Espaniako gizartea, oro har, eta Nafarroako gizartea gero eta kultur aniztunagoak dira. Europako Erkidegoaz besteko herrialdeetatik datozen etorkinak dira horren arrazoi nagusietako bat. Nafarroa, bizi duen garapen ekonomikoaren ondorioz, etorkin gero eta gehiago hartu beharrean egonen da, ezinbestez. Gure erkidegoko jaiotze-tasa baxuak ere berekin ekartzen du kanpoko pertsona ugari etortzea hona lan egitera, familia bat osatzera eta betiko gurekin bizitzera.

Eskola gizartearen eta, horrenbestez, kultur aniztasunaren isla da, eta kontuan hartu beharreako da kultur aniztasun hori aukera bat baizik behar bat dela. Behar horrek berekin ekartzen du erronka eta zailtasun batzuei aurre egin behar izatea. Horiei aurre egiteko hezkuntza komunitateetako kide guztien jarrerak aldatu behar dira eta ezinbestekoa da gutxiengoaren errespetuan eta gizarteratzean oinarrituriko elkarbizitza bideratuko duten giza eta gauza-baliabideak abian jartzea.

Orain gutxi eskuraturiko datu batzuen arabera, 1999-2000 ikasturtean Nafarroan 1.283 ikasle ijito daude, 484 ikasle kultura portugesekoak eta bes-telako kulturetako 1.076 ikasle atzerritar (kolonbiar-rrak, marokoarrak, txiletarrak, errumaniarrak, senegaldarrak, ekuadortarrak eta abar) derrigo-rrerako hezkuntzako adinean. Joera hori ikusita, ezin da itxaron kopuru horiek jaitea baizik eta guztiz kontrakoa: handitzen joatea Espainia eta Nafarroa alderako migrazio fluxuak gora egiten duen neurrian.

Aniztasunaren erronkari aurre egin behar dion eskola aniztasuna balore positibo gisa duena da; pertsonen aniztasunean sinesten duena eta ezberdintasunak aberastasunerako aukera gisa eta ez inolako mehatxu gisa ulertzen dituen.

Eskola kontseiluetako ordezkariak, Iruñean 2000ko apirilean Nafarroako Eskola Kontseiluarekin bildurik, agerian utzi zuten beharrezkoa dela konponbideak ematea eta proposamen irudimenduak egitea, beharrezkoa dela "Kulturarteko Eskolaren" ereduak Nafarroako hezkuntza sistema osoa ukitzea, ikastetxeak, curriculum eta abar, eta ez bakarrik mugatzea gutxiengoetako ikasleak hartzen dituzten ikastetxeetara. Ildo bere-tik, autonomia erkidegoetako eta Estatuko kon-tseiluen topaketak izan ziren, 2000ko maiatzean; haietatik ateratako ondorioak derrigorrez irakurri beharrekoak dira, eta haien gainean gogoeta egin ondoren gauzatu egin behar ditu alor horretan eskumenik duenak.

Entzun egin behar dira irakasleek, zuzendariek eta eskola kontseiluek egindako eskariak, eta erantzun azkar eta eraginkorra eman behar zaie. Asko dira ikasgeletan hizkuntza ezberdinak, kulta-ura ezberdinak, itxaropen ezberdinak dituzten herrialdeetako hurrekin lan egiteko bitartekoak eta baliabideak eskatzen dituztenak. Berriki komu-nikabide lokal batek Nafarroako Erriberan 300 haur etorkin baino gehiagori atenditzeko irakasle-ak falta direla, eta Departamentuak horri konpon-bidea jartzeko daukan sentsibilitate falta salatu du.

Nafarroako Demokraten Elkargunean ikasleen beharrei erantzuna emanen dien eskola baten aldeko apustua egiten dugu, edozein dela ere haren jatorria, eta uste dugu aniztasuna aberasta-sun pertsonal eta sozialerako faktorea dela. Aurrebaldintza horretatik abiatu eta ikusirik

eskola askoren beharrei erantzun eta kulturarteko hezkuntzari arrakastaz ekiteko eskola askok duten beharra, ondoko erabaki proposamena aur-keztu da, eztabaida dadin:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean, arau-proiektu bat aurkez dezan etorkinei eragin-kortasunez behar den laguntza eman dakien ber-matzeko; arau horiek behar diren neurriak jarriko ditu ondoko arloetan: curriculum, antolamendua, eskolatzea, irakasleen prestakuntza, gizarte-, kul-tur- eta osasun-neurriak, toki entitateekiko koordi-nazioa eta abar.

2. Jasotzen dituen neurriez gainera, ondokoak ere sartu beharko dira:

a) Lehentasunezko abegi egiteko eremuei buruzko plangintza egitea; ikastetxe publikoek eta itunduek osatuko dituzten eremu horiek. Horrek bidea emanen du ikastetxea hautatu ahal izateko.

b) Etorkinei abegi egiteko ikastetxeetan, behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak jar-tzea.

c) Irakasleak ikastetxeetan prestatzea, ondo-koak bilduko dituen programa batekin: aniztasuna lantzeko metodologiak, gatazkak konpontzeko estrategiak, familiekiko harremanak, kulturarteko curriculum.

d) Kulturarteko hezkuntzako adituak presta-tzea; haiek izanen dute irakasleak praktikan pres-tatzeko ardura.

e) Gutxiengoetako irakasleei (ijitoak, marokoa-rrak eta abar) prestakuntza zehatza izan dezaten sustatzea, eskolaren eta familiaren arteko bitarte-kari izan daitezten.

f) Ukituta dauden departamentu guztietako ahaleginak koordinatzea: hezkuntza arlokoa, gizarte ongizatekoa, lanekoa, osasun arlokoa eta abar.

g) Bere herritarren gizarteratzea errazteko ahalmena eta modua duten toki entitateetako lan-kidetza aurreikustea, ondoko gaietan: lokalak uztea, gizarte laguntzaileak, boluntarioak, aisia, kirola.

Iruñean, 2000ko azaroaren 10ean

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

F saila:
GALDERAK

C-111 errepideko Erreniegako tartean gertatzen diren istripuei buruzko galdera**EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak C-111 errepideko Erreniegako tartean gertatzen diren istripuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Bilzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Herrilan eta Azpiegitura Departamentuak idatziz erantzun ditzan.

Azken hilabeteotan, trafiko-istripu ugari izan da N-111 errepidean, Erreniegako mendatearen aldean. Istripu horiek larriak eta ez hain larriak izan dira.

Istripu horietako asko euria ari zuela gertatu dira, istripuak jasan dituztenek adierazi dutenez, eta istripuen zergatia errepidearen egoera txarra izan liteke, atestatua egitera joaten diren poliziaek une horietan agertzen dituzten susmoen arabera. Zehazki, galtzadako seinaleei –bereziki, erreiak bereiztekoak direnei– ez zaiela irristakaitzik jarri aipatu izan da.

Horrenbestearainokoa da kasua non poliziaek beraiek adierazi izan baitiete istripua jasan dutenei aukera zeukatela Nafarroako Gobernuaren aurka salaketa egiteko, zuhurtasunik eta bideko segurtasunik eza dela-eta.

Hori guztia kontuan izanik, nire taldeak honako galdera hauek egin ditu:

1.- Zenbat istripu izan da 2000ko urriaren 31tik gaur egun arte lehen zehazturiko errepide-zatian?

2.- Nolako larritasun-maila izan du istripuetako bakoitzak?

3.- Eginiko atestatuetan oinarrituz, istripu horien zergatiak zein direla uste da?

4.- Istripua jasan dutenetatik inork salaketarik egin al du Nafarroako Gobernuaren aurka, istripuen kausa errepide horren seinalizazioaren kalitatea izan dela argudiatuz?

5.- Ildo horretatik, nolabaiteko neurririk hartzea erabaki al du Departamentuak?

6.- Zein enpresak egin du/dute errepide-zati horren seinalizazioa eta mantentzea?

7.- Zein izan dira zerbitzu hori enpresa horiei esleitzearen zenbatekoak?

Iruñean, 2000ko azaroaren 10ean

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Eskola-lantegiei buruzko plan bat egiteko departamentuartereko batzordearen eraketari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak eskola-lantegiei buruzko plan bat egiteko departamentuartereko batzordearen eraketari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2000ko martxoaren 14an Nafarroako Parlamentuak eginiko Osoko Bilkurak erabaki zuen "ikastetxe-lantegiei buruzko plan bat egitea Nafarroarako, merindade bakoitzean arlo horretan dauden beharrianak kontuan hartuz: bai horrelako zentroen beharriari eta giza taldeen, ekipamen-

duen eta inbertsioen egokitzapenari dagokienez, bai zentro horien eta Administrazioen arteko harreman ereduari dagokionez".

Horretarako, Nafarroako Parlamentuak onetsi zuenez, Departamentuen arteko Batzorde bat eratu behar da (horren barnean Hezkuntza, Osasun, Gizarte Ongizate eta Lan Departamentuak sartuz eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa lankidetzan arituko dela), bederatzilabete epean plan hori egin dezan.

Egoera aipaturikoa izanik, honako hau jakin nahi da:

1.- Parlamentuak agindutako Departamentuen arteko Batzorde hori eratu al da? Ez bada eratu, zein arrazoiren ondorioz ez da eratu?

2.- Zein ekintza egin du orain arte Nafarroako Gobernuak 2000ko martxoaren 14ko parlamentu-agindua betetzeko?

3.- Nafarroako Parlamentuak eskaturiko plana noiz aurkezteko asmoa dauka Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2000ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Agoizko eskualderako garapen sozioekonomikoko plan bat prestatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Agoizko eskualderako garapen sozioekonomikoko plan bat prestatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

2000ko ekainaren 22an Nafarroako Parlamentuak eginiko Osoko Bilkuran onetsi zen Agoizko eskualderako Garapen Sozioekonomikorako Plan bat prestatzea, eskualde horretako biztanleek hainbat onura izan ditzaten eta Itoizko urtegia

eraikitzearen kalte handiena beraiek jasatearen truke ordaina jaso dezaten. Plan hori egin behar litzateke ukituriko sektoreekin eta zeresana daukaten Administrazio Publikoekin lankidetzan eta horien parte-hartzearekin.

Halaber, Nafarroako Parlamentuak Itoizko urtegiaren ingurunea gozatzeari, bertako ingurumena zaintzeari eta haren erabilerei buruzko Plan bat egitea onetsi zuen, bai eskualde horretako udalek bai gizarteak oro har Itoizko urtegiak eka-rritako errealitate berriaren ondoriozko onura eskuratu ahal izan dezaten.

Egoera aipaturikoa izanik, honako hau jakin nahi da:

1.- Zein urrats eman du orain arte Nafarroako Gobernuak, Parlamentuaren agindua betetzeko?

2.- Ukituriko udalekin plan horiek abiarazteko bilerak egin dira?

3.- Antzeko errealitatea bizi duten beste leku batzuetara bisitaldiak egin al dira, horiek eredu gisa hartzeko eta Itoizko ingurunerako antzeko planak egiteko gida gisa balio izan dezaten?

4.- Nolakoa da Nafarroako Gobernua prestatzen ari den eta lehenago aipatu dugun Plana? Komunikazioak eta eskualde horren garapenerako oinarrikoak diren bestelako azpiegiturak hobetuko direla erabaki da?

5.- Nafarroako Gobernua harremanetan izan al da Ebroko Ur Konfederazioarekin, erakunde hori aipaturiko planaren prestaketa eta finantzaketan parte hartzera bultzatzeko?

Iruñean, 2000ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

“Pirinioetako Itsasoa” garapen plana prestatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak “Pirinioetako Itsasoa” garapen plana prestatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

Esako urtegiaren handitzea, dirudienez, errealitate bat izanen da. Duela hilabete gutxi, Esako urtegia handitzeko obrak esleitu ziren, zenbatekoa 18.000 milioi baino gehiagokoa izanik. Nafarroako Demokratien Elkargunetik beti azpimarratu izan dugu beharrezkoa dela interes orokorreko herrilan handi baten arazoak “pairatzen” dituzten eskual-

deei ordainak emateko neurriak hartzea, eta aipagai dugun kasua ez da salbuespen bat izanen. Nafarroako Demokratien Elkarguneak behin baino gehiagotan (2000ko martxoan eta maiatzean) eskatu zituen otsailean aurkezturiko “Pirinioetako Itsasoa” deituriko planeko dokumentuak. Kontseilariak erantzun zuen eskaturiko dokumentuak ez zeuzkala Ingurugiro Departamentuak, Ebroko Ur Konfederazioak baizik.

Hori guztia dela-eta, ezinbestekotzat jotzen dugu Esako urtegiaren handitzea egitean gogoan izan dadila ukituriko eskualdea garatzeko plan bat egitea beharrezkoa dela.

Egoera aipaturikoa izanik, honako hau jakin nahi da:

1.- Zein urrats eman du orain arte Nafarroako Gobernuak, “Pirinioetako Itsasoa” deituriko garapen plana egiteari dagokionez?

2.- Ukituriko Nafarroako udalekin bilerarik egin al da haien laguntza eskatu eta planaren edukiari buruz duten iritzia jasotzeko?

3.- Bilerarik egin al da Ebroko Ur Konfederazioarekin eta Aragoiko Gobernuarekin “Pirinioetako Itsasoa” buruzko plana” abiarazteko?

4.- Gogoan izanik ezen, Ebroko Ur Konfederazioko lehendakariak jakinarazi zuen bezala, Esako urtegiko obrei 2001ean ekinen zaiela, "Pirinioetako Itsasoari buruzko Plana" noizko abiarazi ahalko dela uste du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2000ko azaroaren 13an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete
Torres

Bardeako Batzarrari Ingurugiro Zaintzak jarritako bigarren salaketari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Bardeako Batzarrari Ingurugiro Zaintzak jarritako bigarren salaketari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Parlamentuko Askotariko Taldeko parlamentari Milagros Rubiok eskatzen du Ingurugiro kontseilariak honako galdera hauei erantzun diezaiela:

Bardeako Komunitateari eginiko bigarren salaketari buruzko galderak

1.- James Bond-en film bat egitearen ondorioz galzoriko espezie batek jasan zezakeen eragina kontrolatu nahian zebiltzanean ingurugirozaintza-koei pasatzen ez uzteagatik 1999ko maiatzean egin zuten bigarren salaketaren egoera zein da?

2.- Gertakari horiek izan zirenetik ezer ere egin ez denez, Ingurugiro Departamentuak salaketa hori preskribitzen uzteko asmorik al du?

3- Aipaturiko salaketa-espediterearen tramitazioari ekiteko inolako jarduerarik izan al da?

4.- Zergatik dago gelditurik afera hori? Pertsona bera Bardeako Komunitateko lehendakari eta UPNko parlamentari izateak inolako zerikusirik al du horretan?

5.- Salaketa bat dagoenean, prozedura berberari ekiten al zaio, salaturiko pertsona edo erakundea edozein izanik ere?

6.- Nafarroako Naturaguneei buruzko 9/96 Foru Legeak larritzat jotzen duen lege-hauste bati buruzko tramitazioa egin gabe gelditzea onartuko al du Ingurugiro Departamentuak? Izan ere, foru lege horretako 36. 3-d artikulua honakoa dio: "Agintarien agenteen ikuskatze lanari trabak jarri edo gogor egitea, natur guneak edo haien inguruko babesgunea zaintzeko duten eginkizuna betetzen ari direla, lege-hauste larria da" (1.000.001 pezetatik 10.000.000 pezetara bitartean).

7.- Zein izanen da Ingurugiro Departamentuaren jokabidea, jakinik Bardeako Komunitateko Lehendakariak behin baino gehiagotan egin dituela arau-hausteak (izan ere, oraino salaketa baino lau hilabete lehenago antzeko gertakari bat izan baitzen, jadanik zehatua, nahiz eta zehapena hutsaren hurrengoa izan zen)?

8.- Orainoan ere argudio bitxietara joko al da balizko zehapena arintzeko? Zeinetara?

Iruñean, 2000ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Nafarroako Ospitaleko tanatorioko kudeaketan egindako aldaketei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak Nafarroako Ospitaleko tanatorioko kudeaketan egindako aldaketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Ospitaleko Tanatorioa da Nafarroak duen tanatorio publiko bakarra, eta, dirudenez, berriki aldaketak izan dira kudeaketan, zeina ez baita zuzenekoa.

Hori guztia dela-eta, honako hau jakin nahi da:

1.- Nafarroako Ospitaleko tanatorioko kudeaketa-aldaketak: nolakoa da eta nori dagokio gaur egun kudeaketa?

2.- Gaur egungo kudeaketa kontratatzeke zein prozedura jarraitu diren eta zein den kudeaketa-modua (berekia ala kanpoko).

Iruñean, 2000ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Ikuskizun publiko eta josteta jardueretarako ordutegi orokorra aldatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak ikuskizun publiko eta josteta jardueretarako ordutegi orokorra aldatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek,

Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Foru Gobernuari, idatziz erantzun dakion:

Ikuskizun publikoen eta josteta jardueren ordutegi orokorra arautzen duen ekainaren 13ko 221/1991 Foru Dekretuaren aldaketaren bat egingen ari den edo egiteko asmorik dagoen.

Hala bada, aldaketaren kopia bat bidal dakidala edo, kasua bada, aldaketa hori zein prestaketa-fasetan dagoen adieraz dakidala eskatzen dut.

Iruñean, 2000ko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

DBH ikasteko herritik kanpora joaten diren Castejóngo ikasleei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak DBH ikasteko herritik kanpora joaten diren Castejóngo ikasleei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion:

Aurten DBH (1., 2., 3. eta 4. mailak) egiteko euren herritik kanpoko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko nahiz itunduetara joaten diren Castejóngo ikasleen kopurua.

Iruñean, 2000ko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Udaletako idazkarien bajak betetzeko zerrendak prestatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak udaletako idazkarien bajak betetzeko zerrendak prestatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak prozesu bati ekin dio Nafarroako udaletan idazkari-lanpostu hutsek sortzen duten arazoa konpontzeko. Nafarroako Gobernuak honako soluzio honetara jo du: aldi bateko hutsune horiek bete ditzaketen pertsonen

zerrenda bat egin, ondoren zerrenda hori erabili ahal izateko.

Nafarroako Gobernuaren ekimen hori ikusirik, honako hau jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuaren ustez, aipatu zerrendak noiz egonen dira erabili ahal izateko moduan, Foru Komunitateko idazkarien kidegoan aldi baterako sortzen diren hutsune horiek betetzeko?

2.- Nafarroako udaletan dauden bitarteko idazkariari dagokienez, neurriren bat hartzeko asmorik al du Nafarroako Gobernuak?

3.- Bitarteko idazkari horien izendapena legezkoa ote den aztertzei aukera aintzat hartu al du Nafarroako Gobernuak, horien postuak beste idazkari titular batzuekin bete ahal izateko xedez?

4.- Nafarroako Gobernuak asmorik al dauka bitarteko idazkarien egoera arazkotcheko? Idazkari horiek urte askoz jasan behar izan dute legea egin eta administrazio zerbitzuen elkartearen arazoa konpontzeko borondaterik eza.

Iruñean, 2000ko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Goi presioko uren hornikuntzari buruzko plan zuzendaria gauzatzeko eta betetzeko mailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak goi presioko uren hornikuntzari buruzko plan zuzendaria gauzatzeko eta betetzeko mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Aurrekontu Orokorrek, kapital transferentzietan buruzko kontusailen barnean, ekarpen garrantzitsuak jaso dituzte plan zuzendariak

egiteko. Plan zuzendari horiek (bai zaborrak bildu eta bereizteari buruzkoak bai goi presioko ur hornidurari eta ibaiak arazteari buruzkoak) garatzen ari dira agian aldatu beharko litzatekeen plangintza batean oinarriturik.

Ildo horretatik, honako hau jakin nahi da:

1.- Nafarroako eskualdeetarako goi presioko ur hornidurari buruzko plan zuzendariaren betetze-maila zein da?

2.- Eskualde bakoitzerako inbertsio-aurreikuspenak betetzen ari al dira?

3.- Inbertsioa hasi ez deneko edo oso motelduta dagoeneko eskualde zehatzen bat ba al dago?

4.- Iruñerrian 2001-2003 hirurtekoan eta ondorengo urteetan zein obra egiteko asmoa dago? Zehazki, Iruñerriko goi presioko ur hornidurari buruzko plan zuzendaria noiz amaituko dela aurreikusten da? Plan hori garatzeko kostuaren estimazioa zenbatekoa da?

Iruñean, 2000ko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Toki entitateek jasotako diru kopuruei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak toki entitateek jasotako diru kopuruei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés

Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2001. urtean toki entitateen transferentzia arrunten funtsa banatzeko formula berri bat izan litekeelakoan, honako hau jakin nahi da:

1.- Zer kopuru jaso dituzte 4000 biztanle baino gehiagoko Nafarroako toki entitateek 1998, 1999 eta 2000n Transferentzia Arrunten Funtseko parte-hartze gisa?

Iruñean, 2000ko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Etxebizitza bioklimatikoei buruzko plana betetzeko mailari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak etxebizitza bioklimatikoei buruzko plana betetzeko mailari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Biltzarreko Erregelamentuko 184. artikuluan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Parlamentuak 1998ko apirilaren 8an erabaki proposamen bat onetsi zuen. Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zen etxebizitza bioklimatikoak sustatzeko plan bat igor

zezan. Plan horrek Foru Komunitate osoari zuzenduta egon behar zuen, eta etxebizitza eta eraikuntza bioklimatikoak gara zitezten eta iturri berriztatik datozen energiak sustatu behar zituen.

Gero, Nafarroako Gobernuak Nafarroako etxebizitza bioklimatikoei buruzko plana prestatu zuen. Hartan, gure jardueren esparru orokor bat ezarri nahi zen gure komunitatean etxebizitza bioklimatiko gehiago egin daitezten.

Planak zenbait neurri ezarri zituen, eta haiek noraino bete ziren jakin nahi dugu orain. Hori dela eta, ondoko galderari erantzutea nahi dugu:

1. 1999. urterako "Jarraibideak eta arauak" aztertzea aurreikusten zen, hain zuzen ere 3.500.000 milioiko aurrekontuarekin. Egin al da azterlanik arau horiei buruz? Horren kopia bat eskatzen dugu.

2. 1999 eta 2000. urteetarako, besteak beste, "Etxebizitza bioklimatikoei buruzko plan bat garatzeko bulego bat sortzea aurreikusten zen". Sortu al da etxebizitza bioklimatikoak garatzeko bulegorik? Sortu ez bada, noizko aurreikusi du Nafarroako Gobernuak hura sortzea?

3. Planaren garapenean, "eraikuntza bioklimatikoari buruzko eskuliburuak" egitea aurreikusten zen, (4.825.000 pezetako aurrekontua) eta prestakuntza ikastaroak ematea (5.600.000 pezetako aurrekontua). Garatu al dira prestakuntza ikastaro horiek? Nori zuzendu zaizkio eta zein aritu da haietan irakasle? Egin al dira eraikuntza bioklimatikoari buruzko eskuliburu horiek?

4. 2000. urtean, "orientaziorako foru jarraibideak egitea" aurreikusten zen, 3.700.000 pezetako aurrekontuarekin. Egin al dira orientaziorako foru jarraibide horiek?

5. Planak ezarri zuen "laguntza programak sortzeko azterlanak" egitea. 7.000.000 pezeta aurreikusi ziren horretarako. Egin al dira laguntza-programak sortzeko azterlan horiek?

6. Planak ezarri zuen "Eragile eta erakundeetako hitzarmenak" sinatuko zirela. Sinatu al da hitzarmenik eragile eta erakundeekin? Zeinekin eta noiz sinatu ziren hitzarmen horiek?

Iruñean, 2000ko azaroaren 16an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen lanbide karrera aplikatzeko baremoen onespenerari buruzko galdera

AHOZKO GALDERA BIHURTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen lanbide karrera aplikatzeko baremoen onspenerari buruz egindako galdera ahoz erantzuteko galdera

bihurtzea erabaki zuen. Galdera 2000ko irailaren 26ko 75 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostu bat, euskara itzultzaile lanpostu huts bat, oposizio-lehiaketaren bidez betetzekoa

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 20an egindako bilkuran, besteak beste, ondoko erabakia hartu zuen:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara-itzultzaile teknikari-lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa, Mahaiak 1999ko abenduaren 27an hartutako erabakiaren bitartez deiturikoa (1999ko abenduaren 31ko 33. NPAO eta 2000ko urtarrilaren 17ko 7. NAO), bukatu ondoren, eta epaimahai kalifikatzaileak eginiko izendapen-proposamena (2000ko urriaren 16ko 84. NPAO) zein interesdunak deialdiko 7.2 oinarrian ezarritakoa betez aurkeztu dituen agiriak ikusita, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuko funtzionario –teknikarien kidegoko euskara itzultzaile– izendatzea ondoko izangaia. Izen-abizenak:

IRIZAR APAOLAZA, Ander

2. Interesdunak hilabeteko epea izanen du, izendapena jakinarazten zaionetik aitzina, lanpostuaren jabetza hartzeko.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--